



LIBURUA

Enarak azaro urrunetatik



ENARAK ITZULI DIRA GARI BERASALUZE

BOOKTEGI, 2019

IGOR ESTANKONA

Gari Berasaluzeren (Getaria, 1975) bide zirkularra oroiminarekin hasten da, eta bukatzen da etorkizunera begira: “Zurekin besarkatu ditudan hirien/ postalak biltzen badituz, ez da nostalgia izeneko hotel batean/ gauak pianoaren ondoan igarotzeko./ Noizbait/ zure larruaren kolorea izan duten/ lekuei begira esnatzeko baizik”.

Edo agian ez zen inoiz halako maitasunik egon, eta saudade horrek bizi gaitu, Habanan. Banderak, krabelinak, ezpainak, rona, hara idazlearen begietako eremu semantikoa. Hotelak, musuak, ametsak, trenak, horra Gari Berasaluzeren beste aletegi sentimental bat.

Intimitate publiko bat landu du poetak orrialdeotan, non mundua eta norbera ez dauden isolaturik, baizik eta

harreman betean: “Hala ere, ez genuen kalkulatu/ (...)/ eguneroko bossa nova salsa samba eta kunbia festak,/ (...)/ galduko genituenik”.

Gorputzak joan ziren baina paisajea hor da. Gutunak bueltatu zaizkio poema bihurturik. Badiotsuet: *Enarak itzuli dira* txorien euren ibilbidearen antzekoa da, ez dakiguna non hasi eta non bukatzen den.

Ezagutu genuen eta atzera hona datorren Gariren betiko eskua presente dago, ezinbestean. Orraztuko zituen hitzak eta mugituko zituen ostrakak baina, ez alferrik, “arkeologiatik hurbil dagoen poema sorta” da hau, aspaldi zirrimarratutako piezak denak batera. Idealen eta irudi erromantikoen nahastea dakarte, eta bere estilo bereziak

eder bihurtzen du urteek ekarritako galera oro, gozoki xamur arratsalde euritsu bat leihoan. Oparitu digu beraz liburu bat ederra, inarrosi dizkidana gure belaunaldiaren memoria eta borroka galduak. Izan ere Urrutikoetxearen kontzeptu horretatik datoz Gantzarain, Cano, Serrano, Aldai, Berasaluze. Eta gu, betirako Vladimir izango ginela uste genuenok, esnatu ginenean “hipoteka han zegoen oraindik”.

Monterroso eta Sarri, Casablanca eta Chiapas, klasikoetan klasikoena ez al da izango orain poesia mota hau, zeinaren gailur gorena den Gari Berasaluze, bere musikalitate, irudimen eta sentsibilitate itzelarekin? Nork jakin. Zelan dakite enarek, bada, hegoalderantz egin behar dutela? ●